



ACT-MC-2020/0033

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA

1. LEHENENGO ARTXIBOAK IREKITZEA: BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK

Bileraren gai-zerrenda: Getarian Meaga gainean biribilgunea egiteko proiektuko obra kontratuaren lizitazioan aurkeztutako eskaintzen 1. artxibo elektronikoak irekitzea (1-I-17/2017).

Eguna: 2020ko ekainaren 8a

Hasiera/amaiera ordua: 9:00/9:30

Tokia: Bide Azpiegituretako Departamentua (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Bide Artapeneko eta Kudeaketako Zerbitzuko burua, Iñigo Zufiria Zatarain.

Bokalak: Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntza Zerbitzuko burua, Susana Luzuriaga Mocoora.

Bide Azpiegituren Proiektu eta Eraikuntza Zerbitzuko Obra eta Proiektuen Zuzendaritza eta Kontrolaren Ataleko burua, Germán Pozas Zubizarreta

Departamentuko idazkari teknikoa, Elixabete Martinez Iruretagoiena.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontu-hartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuko buruaren orde, Arantxa Etxeberria Labayen AOT.

Idazkaria: Errepideetako Lege eta Administrazio Ataleko burua, Jon Ander Arrieta Berasarte.

Gaur, 2020ko ekainaren 8a, aipatu orduan eta moduan (telematikoki) aurrez adierazitako kideekin, kontratazio mahaia eratu da lizitazioan aurkeztutako bat zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzeko (balio irizpideen bidez balioesteko irizpideak).

Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataformaren bitartez emandako muga-epean (2020/06/02ko 18:00 arte) enpresa hauek aurkeztu dute eskaintza: ALTUNA Y URIA SA (1), CONSTRUCCIONES MURIAS SA (2) ASFALTOS URIBE SA (3); CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS SA (4); CONSTRUCCIONES OTEGUI-GAZTAÑAGA SL (5), CONSTRUCCIONES ZUBIEDER SL (6), EXCAVACIONES PERU SL (7) CONSTRUCCIONES MOYUA SL (8) eta URBYCOLAN SL (9).



Horrela, 1. artxibo elektronikoak ireki dira eta aurkeztutako enpresek ezaugarrien taulako 17. atalean zehazten den dokumentazioa (obraren azterlana eta lan programa zehazten duen memoria teknikoa, eta ingurumen arloko hobekuntzak) aurkeztu dutela ikusi da.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 159.4.e) artikuluan xedatutakoari jarraituz, teknikariek 7 egun naturaleko epean egin beharko dute txostena haztapena esleitzeko.

Bertaratutakoek inolako oharrik egin ez dutenez gero, ekitaldia amaitutzat eman da.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Jon Ander Arrieta Berasarte
IDAZKARIA,

Iñigo Zufiria Zatarain
MAHAIBURUA,



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Akta_eus.pdf